

Saiakera, sail bat beti auzitan

(In essays, a literary gender which is always questioned)

Casenave, Jon

Université Michel de Montaigne-Bordeaux 3.

Département des Etudes ibériques. F-33607 Pessac Cédex

BIBLID [1137-4454 (2002), 19; 61-68]

Beste hiru genero nagusien ondoan, –poesia, narratiba, antzertia–, saiakera genero berezi eta finkatu ga-bea bezala agertzen da. Baina, denbora berean, irekia denez gero, sail guztiz aberatsa da sorkuntza mailan. Beste herrietan bezala, irakurleagoak harrera ona egin dio sail horri euskal literatura mailan. Azken hogeitau urte hauetako arrakasta handien artean, bi entsegu aurkitzen dira, J. Sarrionandiak egin duen Ni ez naiz hemengoa eta Joxe Azurmendiak idatzi duen Euskaldunak eta Espainolak.

Giltza-Hitzak: Saiakera. Genero literario. Irakurle. Sorkuntza. Literatur Kritika. Literatur teoria.

Tras los tres géneros principales –poesía, narrativa, teatro–, el ensayo aparece como un género peculiar, aún sin consolidarse. Pero, al mismo tiempo, como género abierto que es, constituye un apartado muy rico en el plano creativo. Al igual que en otros pueblos, los lectores han dispensado una buena acogida a este campo de la literatura vasca. Entre los libros de más éxito de estos veinte años nos encontramos con dos ensayos: Ni ez naiz hemengoa de J. Sarrionandia y Euskaldunak eta Espainolak de Joxe Azurmendi.

Palabras Clave: Ensayo. Género literario. Lector. Creación. Crítica literaria. Teoría literaria.

Après les trois genres principaux –poésie, roman, théâtre–, l'essai apparaît comme un genre particulier, même sans qu'il soit consolidé. Mais, en même temps, en tant que genre ouvert qu'il est, il constitue une section riche sur le plan créatif. De même que dans d'autres peuples, les lecteurs ont bien accueilli ce domaine de la littérature basque. Parmi les livres ayant le plus de succès au cours de ces vingt dernières années, nous trouvons deux essais: Ni ez naiz hemengoa de J. Sarrionandia et Euskaldunak eta Espainolak de Joxe Azurmendi.

Mots Clés: Essai. Genre Littéraire. Lecteur. Création. Critique littéraire. Théorie littéraire.

Gogoeta egun honek Euskal kritikagintza mailan bilduma baten egiteko parada ematen digu. Bata bestearen ondotik, generoz genero, ikerketak zertan diren ikusten ari gara. Niri, laugarrenaren aipatzeko aukera eman didate antolatzaileek eta eskertzen ditut. Laugarrena diodalarik, ulertu ezazue poesia ez dena, antzertia ez dena, fikzio narratiboa ez dena, beraz, besteetan kokatzen ez dena, erran nahi baita “saiakera” deitu saila. Saka ahala betetzen da laugarren genero hori; etxe guztietan aurkitzen da halako zoko bat, gela ilun ala armairu handi, zeinetan sakatzen ditugun beste geletan sartzen ez diren puskak. Zoko horren egite badu saiakerak idazlanen artean. Badirudi, txantxetan ari naizela, baina laster ohartuko gara, “puska-zoko”, “biltoki ilun” konplexu horretan gordetzen dela saiakeraren funtsezko problematika. Argitaratu berri den artikulu luze eta sakon batean¹, X. Altzibar gure lagunak dio ez dela euskal saiakerari buruz lan orokorrik egin behin ere. Hark, hutsune hori bete beharrez, bilduma teoriko eta historikoa eskaini du. Nik aldiz, ikerketaren problematika baizik ez dut landu nahi; ondoko bi galdera horiei ihardetsi nahi nieke: “Zertan gara euskal kritikagintza mailan saiakerari buruz?” eta “Zeintzuk dira aitzina eramaten ditugun galde eta ikerketak?”

Lehenik, behar genuke finkatu zertaz ari garen “saiakera” erran moldea erabiltzen dugularik, bai baitakizue ikerketa mailan, laneko eremuaren finkatzea dela lehen lana. Sartze moduan erraten genuen beste generoetan kokatzen ez dena sakatzen genuela “saiakera” deitu sailean. Desordena hori argitaletxeen bildumetan nabari da; *Pamiela* argitaletxean adibidez, “Ensayo y testimonio” ematen da azpi-sail bezala eta denetarik aurki daiteke barnean, hala nola Larreko idazlearen egunkaria, Xabier Etxaniz-en saio bat haur-literaturari buruz edo oraino Eduardo Gil Beraren entsegu filosofikoak. *Alberdania* Irungo etxeak “saiakera” deitu sailean antropologia, literatura, historia eta arteari buruzko lanak biltzen ditu bereizi gabe. *Erein* argitaletxean aldiz, berrikitan agertu diren liburuetan segurik hiru azpi-sail bereizten dituzte “saiopaperak” sail orokorraren baitan: literatura, pentsamendua eta gizartea, hezkuntza. Baina erran behar da azken urte hauetako aldaketa dela.

Nahasteka horren berri ere ematen dute lehiaketetan epai-mahaietan parte hartzen dutenek. Aldi guzietz harritzen dira ikusiz zer lan mota desberdinak erabiltzen dituzten eskuetan: historia, geografia, zientziak eta batzuetan goi mailako gai ulergaitzak, literatura ere noski, baina izan daiteke sorkuntza ala berdin unibertsitate mailako ikerketa. Ezberdintasun horietarik aise ezagun da idazleentzat ere “saiakera” sailak ez duela muga garbirik.

Ez badakigu xuxen zer den ere, erran daiteke “saiakera” sail horretan sartzen diren lan horiek, oro har, arrakasta ederra biltzen dutela irakurleen artean. Jadanik erran dugun bezala, argitaletxe handi guztiek sail bat berezia egin dute horrelako liburuentzat eta sailkatze horrek berak erakusten digu idazki mota hori kontuan hartua dela idazleen aldetik, baita irakurlearen aldetik ere, hots, irakurlego bat badagoela gisa horretako liburuentzat merkatu mailan. Eta funtsean hor ditugu lekuko, J. Sarrionandiak 1985ean jalgi zuen *Ni ez naiz*

1. Ikus, URQUIZU, P. (2000) *Historia de la Literatura Vasca*, UNED, Madril.

hemengoa eta J. Azurmendik 1992an argitaratu zuen *Euskaldunak eta Espainolak*; gogoratu behar da, bi saio horiek azken hogeitau urte hauetako liburu arrakastatsuenetan sartzen direla.

Arrakasta ez da bi izenburu horietara mugatzen, saila azkarki aldatu baita hogeitau urtez, hobetu ere eta, beste literatura eremuetan bezala asko hedatu. Ez dut bilakaera horren historia eginen hemen. Nik, doi doia azpimarratu nahi nituzke azken urte hauetako aldaketa handienak. Gerlatik hona, eredu nagusi batzuk agertuz joan dira; hemen gaudenez geroz nola ez aipa K. Mitxelenaren obra; gogoan ditut oraino Mensajero argitaletxean agertu ziren saioak, *Idazlan hautatuak* (1972) deituak eta horietan bereziki, “Asaba zarren baratza” (1960), bizpahiru aldiz segidan irakurri nuena. Erreferentzia handietan ere sar nezake J. Azurmendi, asko ikasi nuen *Zer dugu ORIXEren KONTRA* (1976) eta *Zer dugu ORIXEren ALDE* (1977) lan bikoitzean.

Laurogeiko hamarkadan eta handik aitzina agertu direnetan, euskal saiakeraren hedapena eta irekitzea markatu dituzten hiru erreferentzia nahi nituzke aipatu. Lehenik, J. Sarrionandiak idatzi dituen saioak eta batez ere lehen biak, *Ni ez naiz hemengoa* eta *Marginalia*. Kultura handiko idazlea denez gero, mundu zabaleko literaturan aurkitu zituen erreferentziak ekarrarazi ditu euskal alorrera; formaren aldetik, berriz, saioa ibiltze edo paseatze moduan erabilia du, pretentsio gabeko idazki laburra maisuki erabiltzen zuela. Beste gisa batez baina molde eruditu alegera bera landuz, Patziku Perurenak, euskal nortasunarena-erran nahi baita gure funtsezko gaia-barneratu du hark ere bi liburutan: *Koloreak euskal usarioan* (1992), *Euskarak sorgindutako numeroak* (1993). Eduardo Gil Beraren lanak ez baditugu ahanzten (*Atea bere erroetan bezala* adibidez –1987–), hor bagenuke frogatzen, jakintsuen arteko “saiakera”ren europar tradizioan sartu garela azken hogeitau urteetan, nahiz egokitze moduak aski desberdinak diren idazle batetik bestera. Eta erreberritze eta zabaltze gai horrekin bururatzeko, B. Gandiagaren lanak nahi nituzke izendatu: *Uda batez Madrilen* (1977) baita *Denbora galdu alde* (1985) ere, saio intimista eta poetikoren eremuan ibilarazten gaituen liburu ederra.

Eta orain, pentsatzen jartzen bagara zergatik ez den ikerketa gehiago egiten euskaraz saiakerari buruz, nik erran nezake bi arrazoi handi badiorela. Lehenik, oraintxe berean ikusi dugun bezala, genero horren mugak ez direlako garbi ageri. Saiakerarekin bada, beraz, beste generoekin baino gehiago ene iduriko, oker ibiltzeko arriskua. Eta bigarren arrazoa lehenari guztiz lotua da: saiakeraren ikertzeko tresna kontzeptualak ez dira narratiban, antzertian edo poesian erabiltzen direnen heinean oraindik. Adibidez, gaurko fikzio narratibo bati narratologiaren eredia aplikatzen ahal zaio eta, horretarik abiatuz, azterketa interesgarri bat bultzatu daiteke bide seguretik ibiliz. Saiakera mailan, mementoan, bada ihardespene baino galdera gehiago.

Ohartu zaretenez, saiakerak ez du muga garbirik. Halarik ere, bai literaturaren historian aurkitzen diren eredu bitartez, baita kritikariek landu dituzten sailkapenei esker ere, zenbait ezaugarri altza daitezke. Ezaugarri orokorrena, lehenik: saiakera ez da fikzioaren gainean eraikitzen, eleberria, beste prosaz-

ko generoa bezala. Beraz, G. Genette frantses ikerlariaren fikzio-dikzio² oposaketa baliatuz, erranen dugu saiakera orokorki “dikzioan” sartzen dela. Fikzioaren arazoa horretan utzirik beste hiru ezaugarri aipatuko ditugu: saiakerak badu egitura ireki bat, idazle eta irakurlearen arteko harreman bereziak argitara ematen ditu, eta azkenik, literaturtasun ezaugarriak erakusten ditu.

Has gaitezen egiturarekin. Lehenago erraten nuen beste hiru generoetan sartzen ez dena laugarrenean kokatzen dela. Horregatik, saiakerak badu, nahi ala ez, alde espermental bat, eta oroitu behar, aro modernoaren hastapenean, Montaigne, Bordeleko auzapez idazlearen *Les Essais* hor ditugula eredu bezala. Adibide hori gogoan atxikiz, erran behar da “egitura irekia” dela lehen ezaugarri berezia. Alabaina, Dideroten entseguek ez dute formaren aldetik zer ikus handirik Montaigneren liburuarekin, are gutxiago oraino Baudelairek arteari buruz idatzi dituen saioekin, edo, hogeigarren mendean sartuz, G. Bernanos edo P. Handkeren sail bereko idazkiekin. Euskal eremuan, Perurenaren *Koloreak euskal usarioan*, Azurmendiren *Euskaldunak eta Espainolak* eta Sarrionandiaren *Ni ez naiz hemengoa*, hiru molde desberdinez gai berdina lantzen dute, erran nahi baita euskal nortasuna, baina hautu estetikoak gutziz berezita daude. Gogoan izan dezagun ere “saiakera” hitzak berak erakustera ematen duela ez dela lan borobildua; agerian uzten du amaigabeko egitekoa dela.

Bigarren ezaugarri nagusia, idazlea eta irakurlearen arteko harremanak edo bestela erranez, esakuntza eta harrera edo hartzearen problematikak. Beti oroitu behar da, Zahar Aroan dituela bere erroak Aro Modernoan Montaignek finkatu duen saiakera genero berria, lehenagoko Greziar eta Erromatarrek idazten zituzten gutunez eta elkarrizketez osatutako liburuetan, hain zuzen. Eta noski horretarik zerbait begiratu izan da. Lehenik ikus dezagun idazlearen eskualdea: honek bere burua sartzen du –osoki ala gutxiago gaiaren arabera– aitzinatzen duen tesian. “Saiakera” hitza erabiltzen duen moduan (liburuaren estalkian, aitzin-solasean edo beste nonbait), kontratu bat bezala proposatzen dio irakurleari, erran nahi baita hunkituko duen gai horri buruz jenden artean badabiltzan ikuspegi arruntak jorratuko dituela edo bederen harrotuko pixka bat. Eta bistan da baduela horretan idazleak irakurlea bere alde biltzeko xedea, haren konbentzitzeko gogoia edo oraino, haren probokatzeko gutizia. Nahiz galde erantzunak berak egiten dituen, ez da dudarik idazlearen adimenduan elkarrizketa isil baten gainean eraikia dela saiakeraren egitura. Orain ikus dezagun irakurlearen alderdia. Erraten genuen irakurlea bere zakuan sar arazi nahi zuela idazleak, baina, denbora berean, haren laguntza eskatzen du, eleberriaren irakurtzeko baino indar gehiago egin behar baita saiakerak eskaintzen duen gogoeta-munduan sartzeko. Pentsatzen aritzeko, bi lagun bederen behar baitira, Platonen adibideak erakusten duen bezala. Horregatik preskeski erran daiteke, saiakera mintzalekua bilakatzen dela gizarte batentzat. Horren bitartez, edozein gai “mintzagai” bilakatzen ahal da, gai minberak barne, hala nola “euskara”, “Euskal Herria” eta, ororen buru, “Euskal nortasuna”rekin” gertatu den bezala hogeigarren mende honetan zehar gure literatu-

2. GENETTE, G. (1991) *Fiction et diction*, Le Seuil, Paris.

ran. Gainera, oraingo hedabideekin, agerkari, irrati, telebista, mahai-inguru eta beste, mintza leku edo pentsa leku berezi horrek hedapen bat gaitza aurkitzen du, Ibon Sarasolak *Euskararen ajeak* (1997) entseguarekin berrikitan erakutsi digun bezala.

Azken ezaugarri bezala, literaturtasuna aipatuko dut. Horretan ez naiz luzatuko, zola gabeko amildegia baita arazo hori. Doi doia Jakobsonen definizioa gogoratuko dut erranez literaturtasuna dela hitzez jositako mezu bat artelanen lerroan sarrarazten duen ezaugarri estetikoa. Laburbilduz, erran dezagun idazkiaren baitan dagoen –ala falta den, nola gerta– helburu estetikoa edo literaturaren egiteko gogoia daitekeela gure hirugarren sor-marka berezia saiakera mailan. Hori orokorki, erran nahi baita bai idazlearen aldetik baita irakurlearen ikuspegitik ere. Beraz, ene ikerketa eremuan onartzen dituzten saioak ez dira fikzioan sartzen eta ondoko hiru ezaugarri horiek agerian dituzte: egitura irekia, elkarrizketarako gogoia, eta helburu estetikoa.

Ezaugarri horiek gogoan nituela hautatu nuen *Buruchkak*, Jean Etxeparek 1910ean argitaratu zuen maisu lana ikerketa gai bezala tesiaren egiteko. Lehen aldian irakurri nuelarik, 1980ean Elkar argitaletxeak obra berriz argitaratu zuenean asko gustatu zitzaidan eta, berehala, Montaigne gogorarazi zidan. Maite ukan nuen haren doinua eta libertate gosea. Bestalde, iruditzen zitzaidan, beti gauza berak aditzen zirela hari buruz: kontserbadoreek zentsuratu zutela; idazkera eder baina zinez bihurtikatu zuela eta, bururatzeke, Hego aldeko ereduak eta euskaltzaleek bultzaturik, Iparraldeko euskara-garbizaleetan handiena izan zela. Baina, ene gustuko, sobera gutxi aipatzen zen zer berri ekarri zuen euskal literaturan, nolako Euskal Herria zuen gogoan, zer euskara mota asmatu eta erabili zuen.

Dakizuen bezala, *Buruchkak* liburu hori saiakera bilduma da, hogeit bat saio desberdin biltzen baititu. Eta iruditzen zitzaidan, Etxepareren ekarpen aberatsaren neurtzeko eta haren lanaren ulertzeko, hautatu zuen idatz moldea, hain zuzen “entsegu” genero hori behar nuela barneratu, aukera estetiko horretan zegoelako, beharbada, obra horren giltza. Artetik oroitarazi behar dut, J. Etxeparek berak saio bilduma bezala aurkezten ziola bere liburua RIEVeko lehendakariari, Julio de Urquijori beraz, 1910ean igorri zion gutun batean.

Har ditzagun lehenago aipatzen genituen ezaugarriak, Etxepareren lanaren aztertzeke lagungarri direnez. Egitura irekia lehenik. Hala da segurki *Buruchkak* idazki bilduma. Alde batetik testuak kentzen, gehitzen edo ordezkaten ari izana baita azken mementoa artean eta, bestaldetik, denetarik sartu baitu bilduma horretan: idazki motzak ala luzeagoak, autobiografi modukoak ala kritika literarioa –orduan guztiz modan zen idazle portretaren bitartez, hain zuzen Zalduyrena–, gizarte gaiak; beraz saiakeraren eremu zabala kurritzen du liburu horretan.

Elkarrizketarako gogoia, bigarren ezaugarria. Hori ere bada noski. Doi doia erran dezagun, orduko Euskal Herriari buruz, euskarari buruz, hots, euskal nortasunari buruz, ideiak erreberitzen ari izan dela eta, agerian ala gorderik

testu motaren arabera, irakurlearekin ideia eta xede horiek partekatu nahiz ari izana dela. Elkarrizketarako gogoaz bazuen, euskal gaien eztabaidatzeko gutizia bazuen. Funtsean, erantzun bat ukan zuen, baina noski ez hark igurikatzen zuena, zeren eta, hain segur dakizuen bezala, liburua saltzetik kentzeko erregua ukan zuen familiarengandik baita zenbait lagunengandik ere.

Literaturtasuna. Horretan ere, ez da dudarik, kritikari handienek –Lafitterekin hasiz, Mitxelena, Orpustan edo Kortazarrekin segituz– errana dute garrantzi handiko estilo laborategia izan dela J. Etxepareren obra eta euskal literaturaren baitan kausi daitekeen saiakera eredu ederrenetarik bat eman duela.

Zertaz ari da saio bilduma horretan J. Etxepare? Nik erran nezake, bere moldean, orduko euskal literaturan erabiltzen zen gai nagusia lantzen duela, erran nahi baita euskal nortasuna. Eta zer berri ekartzen du gai horretan? Dudarik gabe ikuspegi kritiko bat, eta euskal nortasunaren eztabaidatzeko gogoaz, euskara barne. Dakizuenez, hogeigarren mendearen hastapeneko literaturan, beste molde bat bazuten idazleek euskal nortasunaren lantzeko, hitz batez errateko, fikzioa. Hor ditugu lekuko Jean Barbierren *Piarres* (1926-1929) edo Domingo Agirrerren *Garoa* (1912). Idazle horiek, eleberriaren egitura borobila, guztiz borobildua ere erran nezake erabiltzen dute. Euskal mundu trinko eta hertsu baten itzal gabeko irudi leun leuna ematen dute. Eta eleberri borobil baten eredu klasikoaren bitartez garatzen dute, giltzapean atxikitzen dute euskal mundu hori: kronologiaren bitartez, deskribapen zehatz batzuen bitartez eta zenbait pertsonaia oso, leun eta borobilari esker, Ana Toledok³ ongi erakutsi duen bezala. Bi liburu horietan, baserriko lehenagoko mundu borobil horrek erakustera ematen duen euskal nortasuna, behin betiko finkaturik dago edo hala ematen du segurik irakurtzerakoan, mundu horrek bere zentzu osoa iraganean balu bezala, garaiez garai aldatzeko beharrik ez balu bezala. Orain dugun ikuspegiarekin badakigu bi idazle handi horien maisulanek mundu baten bururapena eta bilduma eskaintzen zutela eta ez haiek espero zuten euskal nortasunaren etengabeko eraikitzea. Lehen euskal eleberriak izanik, literaturaren aldetik hastapen bat finkatzen zuten, baina, gaiaren aldetik bururapen bat erakusten zuten. Jean Etxepareren lanak, aldiz, ez zuen betiko euskal nortasuna osoaren erakusteko xedea; doi doia haren lantzeko, haren eztabaidatzeko gutizia bazuen: euskarari buruz, itsasoz haraindiko euskaldunei buruz, gizarte mailako auziei buruz, izan daiteken elizako sineskera lotuak edo hurren eskolatzeko moldeari buruz edo oraino maitatzeko molde ezberdinetaz eta abar, ez baititut hemen bederazka *Buruchkak* liburuan diren gai guztiak aipatuko. Eta berriz diot, saiakerak ematen dio liburuari daukan eztabaida giro irekia. Saiakeraren alde formalek, aukera estilistiko eta estetikoek libertate bat, indar kritiko bat ematen zioten, Barbierrek eta Agirrek erabiltzen zuten eleberri eredu klasikoak ez zuena.

Bukatzeko, ene lanetik begiak altxatuz, zenbait norabide bilatuko ditut “saiakera” sail horretan. Erretorika eta estilistikaren bidea ez dut hemen az-

3. TOLEDO, A. (1989) *Domingo Agirre: Euskal eleberriaren sorrera*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.

pimarratuko, zeren eta, erran gabe doa denentzat Orixe, Mitxelena, Azurmendi edo Sarrionandiaren estiloaren aztertzea guztiz interesgarria daitekeela. Nik beste lau norabide nahi nituzke azpimarratu: literaturaren historiarena, generoa edo poetikarena, pragmatikarena eta, bururatzeko, literatura erkatua edo konparatuarena. Has gaitezen beraz literaturaren historiaren ikuspegitik. Ez da dudarik, X. Altzibarrek bere artikuluan hasiera eman dion lanak jarraipena bat eskatzen duela. Hasieran erraten nuen saiakera emendatuz, hedatuz eta erreberrituz joan zela azken mende erdi honetan. Lehen lana genuke, beraz, korpus horren finkatzea, gure altxorraren izendatzea eta harriz harriz sailkatzea.

Bigarren norabidea, poetikaren bidea daiteke, erran nahi baita saiakera genero bezala aztertzea, eta horretan, besteak beste, ikertu behar daitezke prosa eta poesiaren arteko zerikusiak. Bide emankorra genukeela ez dut dudarik eta adibide baten bidez erakutsiko dizuet zer dudan gogoan. Har ditza-gun, *Uda batez Madrilen* eta *Denbora galdu alde*, B. Gandiagak duela hogeitatu urte inguru argitaratu dituen obra aberatsak. Bietan, saiakera edo idazki didaktikoa eta poesia guztiz hurbil daude, batzuetan nahasten dira eta ez dut uste bi maisu lan horiek azter daitezkeela saiakeraren ekarpena neurtu gabe, hots poetikaren arazoa behar bezala barnatu gabe.

Hirugarren norabidea, ikerketa pragmatikoarena daiteke. Gorago erraten nuen, saiakera mintzagai eta mintzalekua zela eta sail horretan ere aunitz gauza baikenuke errateko. Aski da ikustea J. Azurmendiren obra, hala nola *Zer dugu ORIXEren ALDE* eta haren parekoa *Zer dugu ORIXEren KONTRA* edo berrikitan agertu den *Oraingo gazte eroak* gure nortasuna dela beti auzigai ikusteko eta auzitan euskal gizartean berean baita inguruko gizarteetan ere. Horretan, gai minbera denez geroz, saiakeraren idazleak bere irakurlearekin sortzen dituen harreman bereziak garrantzi handikoak dira, noski. Balio luke ikustea nola eta zer heinetan aldatu diren idazle eta irakurleen arteko harremanak saiakeraren baitan eta haren bitartez.

Eta bururatzeko, laugarren norabide bat aipa nezake, literatur erkatua edo konparatuarena hain zuzen. Horretan ez naiz luzaz ariko, bide horren interesa begien bistakoa baita. Inguruko literatur idazle erdaldunek, euskal idazleek berrek –beste hizkuntza batean ari izan direnean– nola aipatu eta itxuratu duten Euskal Herria eta Euskaldunak behar liteke hurbiletik aztertu eta konparatu, garai berean euskaraz emanak izan diren irudiekin. Bi adibide baizik ez dut emanen. Lehenik J. Vinsonena. Bi mendeen arteko garaia ezagutzen dutenek badakite zer nortasun berezia zuen gizon horrek eta zer eztabaida biziak sortu zituzten hark euskaldunei buruz argitaratu zituen ikuspegi bereziak eta, gehienetan, ezezkorrak. Mende bat iragan ondoan, tenorea jina da dudarik gabe ikusteko xuxen zer zion eta zertarik heldu zitzaion horrelako ikuspegi, baita zer zioten euskaraz idazten ari ziren haren kontrakoek ere. Azken adibidetzat har dezagun berriz J. Etxepareren itxura eztabaidagarria eta lan aberatsa. P. Lhande, Euskaltzaindiaren lehen idazkaria, idazle trebea zela badakizue, baita saiakera gustukoa zuela ere eta idatzi duela zenbait liburu erdaraz sail horretan. Belaunaldi berekoak ziren biak eta garai berean entseguak argitaratzen

ari izan dira, Lhande frantsesez eta Etxepare euskaraz. Eta, zuen ustez zein zen bi idazleatarik ausartena, berritzaileena, kritikoa? J. Etxepare, dudarik gabe, beraz, *Buruchkak*, euskarazko saiakera. Horretan ere badaiteke zer bila?

Euskal saiakeraren emaitzak emendatuz doaz urtez urte; orduan, ez da dudarik gure ikerlari gazteek gero eta gehiago sail horretan bilatuko dituztela beren aztergaiak. Agian, aipatu ditudan kritika-norabideek ibilkariak ukanen dituzte heldu diren urteetan.

BIBLIOGRAFIA

Erdaraz: (Ikuspegi Orokorrak eta teorikoak)

- GLAUDES, P.; LOUETTE, J.F., (1999) *L'essai*, Hachette.
ADORNO, T.W., (1984) "L'essai comme forme", *Notes sur la littérature*, Flammarion.
MATHIEU-CASTELLANI, G., (1998) *Montaigne, L'écriture de l'essai*, PUF.
GENETTE, G., (1991) *Fiction et diction*, Le Seuil.
BARTHES, R., (1975) *Roland Barthes par Roland Barthes*, Le Seuil.

Euskaraz: (Hautaketa Bat...)

- MITXELENA, K. (1972), *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, Etor, Donostia.
AZURMENDI, J. (1976), *Zer dugu Orixeren kontra*, Jakin, Arantzazu.
AZURMENDI, J. (1977), *Zer dugu Orixeren Alde*, Jakin, Arantzazu.
AZURMENDI, J. (1994), *Espainolak eta Euskaldunak*, Elkar, Donostia.
GANDIAGA, B. (1977), *Uda batez Madrilen*, Jakin, Arantzazu.
GANDIAGA, B. (1985), *Denbora galdu alde*, Erein, Donostia.
SARRIONANDIA, J. (1985), *Ni ez naiz hemengoa*, Pamiela, Iruñea.
SARRIONANDIA, J. (1988), *Marginalia*, Elkar, Donostia.
GIL BERA, E. (1987), *Atea bere erroetan bezala*, Pamiela, Iruñea.
PERURENA, P. (1992), *Koloreak euskal usarioan*, Erein, Donostia.
PERURENA, P. (1993), *Euskaraz sorgindutako numeroak*, Erein, Donostia.
ETXANIZ, X. (1997), *Haur eta gazte literatura*, Pamiela, Iruñea.